

## Elkartasun Aerobik Maratoia

Belabietan izango  
da 16:30ean ▶ 6



# Erakundeek Gerontologikoaren erabilpen aldaketa hitzartu dute

**TOLOSA ▶** Jangela eta zentro soziala Udalaren esku geldituko da eta etxe babestuak egingo dituzte

**EGOILIARRAK ▶** Lekualdaketak 15ean amaituko dira; «tolosarrak Tolosan geldituko dira» ▶ 2



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Esther Larrañaga Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatua atzo Tolosako udaletxean. LEIRE MONTES

**TOLOSA ▶**

## «Denok galtzen dugu etxea itxita», diote

Gerontologikoaren aldeko manifestazioa gaur 12:00etan ▶ 2

**ARESO ▶**

## Olazabal pilotaria, Euskal Ligan finalean

Bihar jokatu du Abadiñon ▶ 7

**VILLABONA ▶**

## ‘Xomorroak’ antzezlan, bihar Gurean ▶ 4

**IBARRA-ZIZURKIL ▶**

## Otaño eta Otaegi Urrezko Aizkoraren bila Bidegoianen

Bihar 12:00etan ariko dira, Otaño nagusietan eta Otaegi, gazteetan ▶ 3

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Helbururik baduzu?

Profesionalak hezituz

943 316 900

JARDUNALDIAK. ATEAK ZABALIK.  
Martxoaren 7an. Orduak: 12:00etan eta 18:00etan.

OBTALARITZA ETA TURISMOA	INFORMATIKA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jeltetxea arloa,</li> <li>• Sukalkaritza (EM),</li> <li>• Jeltetxea eta laborerako zerbitzuak (EM),</li> <li>• Goozogintza eta oingintza (EM),</li> <li>• Sukalde-iguntzaila, I. maila,</li> <li>• Ostaluz arloa,</li> <li>• Bidala agentziak,</li> <li>• Turismo-informazio eta merkataritza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informatika-sistemen administrazioa (A eta D),</li> <li>• Informatika-aplikazioen garapena (A eta D),</li> <li>• Sistema informatikoen ustaketa (EM).</li> </ul>
MERKATARITZA ETA MARKETINA	ADMINISTRAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nazioarteko merkataritza,</li> <li>• Merkataritza (EM),</li> <li>• Merkataritza-kudeaketa eta marketina.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioa eta finantzak (A eta D),</li> <li>• Administrazio-kudeaketa (EM-A eta D),</li> <li>• Kalkulazioa,</li> <li>• Bulego-iguntzaila, I. maila.</li> </ul>

Cebanc-Cdea  
FORMACION PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA  
Berio Pasealekua, 50 • www.cebanc.com

## GERONTOLOGIKOA ▶

## «Nork ziurtatzen digu zahartzaroan plazarik behar izango ez dugunik?»

«Denok galtzen dugu Gerontologikoaren itxierarekin», dio plataformak

L. MONTES

«Egoiliarrek, langileek, zentroaren erabiltzaileek eta senitartekoez ez ezik, Tolosaldeko herritar guztiok galdu egiten dugu Gerontologikoaren itxierarekin». Haserre eta kezkatuak dira Gerontologikoaren aldeko plataformakoak; haien esanetan, «bizitzeko erakaldak, emakumea gero eta gehiago etxetik kanpo lanean, etxe txikiagoak...». Nork ziurtatzen

digu zahartzaroan zentroren batean plazarik behar izango ez dugunik? Horren aurrean, ez dago ezer egiterik.

Gizartea zahartzen ari dela diote. Tolosaldean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu sozialen maparen arabera, 2001. urtean 65 urtetik gorako 6.202 adineko zeuden; 2005ean, jada, 6.449 dira. Horri aurre egiteko 2003an Aldundiak egindako mapa izan dute mintzagai plataformakoek: «2010. urterako 266 plaza behar izan-

go direla jasotzen du mapak. Ez da inondik inora agertzen Gerontologikoaren itxiera: bertan dauden plazak zenbatuz gero 253 izango litzateke guztira; zentroa itxita, 191 gelditzen dira. Beraz, 75 falta dira. Aurreikuspenak Tolosaldeko egoiliarrentzat dira soilik, eta ez autonomoentzat, minusbaliatuentzat baizik. Gainera, mapan zera esaten da hitzez hitz: 'Erresidencia plazen eskaintza egokia da epe luzean'. Datu horien aurrean, «Gerontologi-



Plataformaren aurkezpena, otsailaren 19an, Kultur Etxean. I. TERRADILLOS

koari ez» esatea, «plazen baliabideen bidezko antolamendua eskatzea» dela diote.

Adinekoei maitasuna eta errespetua «une gogorretan batez ere, beren etxea derrigorrez utzi behar izan dutenean kasu» azaldu behar dela adierazi dute plataformakoek. «Horregatik, dagokien plaza kopu-

ria Tolosan bertan izan dezaten borrokatu behar dugu. Horrela izango dugu, eskualdean, bizikaltate maila ona, eta gure herrian bizitzeaz harro egongo gara».

Bestalde, senitartekoez gaur antolatutako manifestazioarekin bat egin dute. 12:00etan abiatuko da, Triangulotik.

## GERONTOLOGIKOA ▶

## Erabilera aldaketa hitzartu dute Udalak eta Aldundiak

Jangela eta zentro soziala Udalaren esku geratuko dira martxo bukaeran; bere kabuz baliatzen diren 40 adinekoentzat etxebizitza babestuak eraikiko dituzte

LEIRE MONTES

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gerontologikoaren erabilera aldaketaren gainean akordioa lortu dute. Jangelaren, zentro sozialaren eta babestutako etxebizitzaren arduren nondik norakoak jasotzen ditu akordioak. Atzo eguerdian eman zuten hitzarmenaren berri, udaletxean, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatuak.

Larrañagaren esanetan, urtarilaren 18ko Batzar Nagusietan iragarri zuten Gerontologikoaren erabilera berriantolaketa. Horren harira, hiru zutabe ditu lortutako akordioak: «Zaharren egoitza izateari uztea eta eguneko zentroko zerbitzua Tolosan bertan, baina beste leku batean, eskaintzea; jangela soziala eta zentro soziala Tolosako Udalarri eskualdatzea, eskumena harena denez; eta adineko pertsona autonomoentzat etxebizitza babestuak egitea erakininean». Diputatuaren hitzetan, «proposatutako berrantolaketa behar errealei erantzuna izan nahi du». Lan taldea ere osatu dute bi erakundeek, prozesua aurrera eman eta jarrai-



Jokin Bildarratz eta Esther Larrañaga, atzoko agerraldian. LEIRE MONTES

pena egiteko. «Gure adinekoei kalitatetik onena eskaintzeko nahiak batu gaitu, eta horregatik borrokatu behar dugu», azaldu zuten Bildarratzek.

Martxo bukaerarako jangela eta zentro soziala Udalaren eskura pasatzea espero dute, eta zerbitzua «funtsean, egungo bera» izango dela esan zuten alkateak —Eusko Jaurlaritzak 2001ean onartu zuen dekretuaren arabera, udalei dagokie eskumen hori—. Leku aldaketarik izango den ala ez ez dute zehaztu oraindik.

Bigarren, Gerontologikoan etxebizitza babestuak egingo direla adostu dute akordioan: pertsona autonomoentzako 40

plaza izango dira. Foru Aldundiak, Udalarri adierazitako konpromisoaren arabera, %50eko diru laguntza emango du. «Udalak eskaera egokia egin du, dagoeneko Gizarte Politikarako departamenduak duen Inbertsioetarako Laguntza Planean, hartara Aldundiak ere parte hartuko du proiektu berria finantzatzeko. Lehendik ere esan genuen prest ginelako Udalaren eskumenekoa den baliabide hori martxan jartzen laguntzeko», azaldu zuten Larrañagak.

Gaur egun adinekoei etxebizitza babestuen eskaria ez da behar bezala aintzat hartzen, diputatuaren arabera: «Arrazoi

sozial batengatik edo bestearengatik beren etxean bizi ezin duten, baina beren kasa moldatzeko moduan dauden adinekoei eskariari erantzuteko baliabidea dira etxebizitza babestuak. Pertsona horiei, egun, egoitza eskaintzen zaie, eta hori ez da egokia. Autonomoek beste atentzio mota arinagoa eta malguagoa behar dutelako. Eta mendekotasun maila handiagoa dutenen plaza okupatzen dutelako egoitzan».

## Egoiliarren egoera

«Egoiliarren leku aldaketa prozesu zaila» izan da, Larrañagaren aburuz: «Haiei eta beren senitartekoei ahal zen kalterik txikiena egin nahi genien. Horregatik, familia bakoitzarekin egin ditugu bilerak, haien egoeraren berri jakiteko, eta nora joan nahi zuten ezagutzeko.

Otsailaren 3an hasi zen egoiliarren lekualdatzea, eta «martxoaren 15erako» amaituko da. «Erabiltzaile gehienak hautatu duten egoitzara joan dira behin-betiko, senitartekoez eskatu baitzuten ahal zen neurrian hain denbora gutxian egoitzaz bi aldiz ez aldatzea».

36 adineko egoitza berria dira honezkerok. Hala geldituko

da lekualdaketa: 31 izango dira Tolosaldean, Donostialdean 11, Goierri 6, Bidasoan, 2 eta Urola-Kostan 1. Alkatearen esanetan, «tolosarrak Tolosan geratzea nahi genuen, eta lortu dugu. Berri pozgarria da». Iurreamendi egoitzak hartuko ditu Gerontologikoko egoiliar batzuk. Egitekoak ziren lanak atzeratu egin dituzte, «beste gaiak lehentasuna baitzuen».

Langile funtzionarioei Foru Aldundian emango diete lanpostua. «Ez zuten Eibarreraino joan nahi, eta ez dira joango», azaldu zuten Larrañagak. Azpikontratututako enpresetako langileak, berriz, jada ez direla Aldundiaren eskumena dio: «Dagoeneko guk ezin ditugu lanpostu horiek mantendu. Baina enprekin harremanetan jarri gara, eta beste nonbaiten lana emateko arazorik ez dutela izango esan digute».

Eguneko zentroak dituen erabiltzaileak, berriz, Jesusen Zerbitzarien zentrorra joango dira, martxoaren 14tik aurrera. «Horretarako, 12 plazaetan zabaldu du departamenduak mojekin duen hitzarmena».

Azkenik, senitartekoei eta langileei «eskerrak» eman zizkien diputatuak, «beren profesionaltasunagatik, eta adinekoei eskaintutako arretagatik».

## EGOILIARRAK ▶

Egoiliarren lekualdatzea hala geratuko da:

- Tolosaldea. 31.
- Donostialdea. 11.
- Goierri. 6.
- Bidasoa. 2.
- Urola-Kosta. 1.

KIROLA ▶

# Otaño eta Otaegi, Urrezko Aizkoraren bila Bidegoianen

Bihar Urrezko Aizkoraren banakako txapelketa 12:30ean hasiko da; Otaño nagusietan ariko da eta Otaegi gazteetan

NOELIA LATABURU

Bihar 12:30ean Urrezko Aizkoraren banakako txapelketa izango da Bidegoianen. Eskualdeko bi ordezkari bertan izango dira txapela lortzeko helburuz. Joseba Otaegi zizurkildarra eta Unai Otaño ibartarra, bakoitza bere mailan, Amiano eta Elorriagaren aurka ariko dira, hurrenez hurren.

Unai Otañorentzat lehenengo aldia da Urrezko Aizkoran lehiatzen dela. Azken aldian, oso emaitza onak ari da lortzen Otaño, izan ere, Euskal Herriko Txapelketan garaile suertatu eta bigarren mailara jokatzera pasa zen. Biharkoan, Elorriagaren aurka ariko da ibartarra nagusien mailan. «Nire ustez bera da faboritua, esperientzia handia du eta kortean oso txukun ibiltzen da; hala ere, oso



Unai Otaño. INIGO TERRADILLOS

gustura ari naiz entrenatzen eta neure burua oso ondo ikusten dut», dio Unai Otañok. Txapelketa honetaz gain badu ibartarrak beste lehiarik, apirilaren hasierarako Mindegia-ekin eginiko apostua, alegia.

Joseba Otaegi gaztea ere gootsu ailegatzen da igandarako hitzordura, izan ere Urrezko



Joseba Otaegi. IMANOL GARCIA

Aizkoraren bikotekako txapelketa irabazi berri du Zizurkilgoak. Dena den, «esperantza gutxiago» dituela aitortu du. Hasi berria da aizkoraren munduan eta bere lehen partaidetza izango da txapelketa honetan. Amiano altsasuarraren aurka lehiatuko du Otaegi, gazteen mailan.

TOLOSA ▶ ZIKLOTURISMOA

## Marraskilo taldea, denboraldi atarian

Bihar ekingo dio denboraldiari Marraskilo zikloturista taldeak; Tolosa-Tolosa irteera egingo du, 60 kilometroko ibilbidea osatuz



Marraskilo taldeko zikloturista batzuk, abiatu aurretik. MARRASKILO

ERREDAKZIOA

Bihar ekingo dio denboraldiari Marraskilo zikloturista taldeak. Ohitzen joateko, irteera lasaigoak antolatzen dituzte hasieran. bihar, Tolosa-Donostia Zubietako Asteasu-Tolosa ibilbidea osatuko dute; 60 kilometro, guztira. 09:00etan da hitzordua, taldearen egoitza, Berazubín. Apirila bitarte, igandero egingo dituzte txangoak.

iragarki laburrak ▶

**Peoiak.** Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.  
**Sukaldari laguntzaileak,** sukaldariak, zerbitzariak. Plaza

libreak: ikastetxeak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. Informatu. 943 65 01 93  
**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Haur Hezkuntza.** 106 plaza gaztelaniaz, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Mantenua.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.

TOLOSA ▶

### DJ emanaldia gaur Abastos merkatuan

Tolosako Gazteria sailak, DJ emanaldia antolatu du gaur gauerako. 23:00etan hasiko da Abastoseko merkatuan eta 01:30ak arte iraungo du. Mota guztietako musika pintxatuko dute eta Tolosako gazteek giro atsegina pasatzeko aukera izango dutela ziurtatu dute. Hori dela eta, bertaratzeko deia luzatu dute Gazteria sailetik. Bertan izango diran Djak ondorengoak dira: Nemux Djak, Dj Zala eta Nestor Dj, hain zuzen ere.

TOLOSA ▶

### Pirritx eta Porrotx gaur Leidorren



Pirritx eta Porrotx pailazoaren beste emanaldi bat. HITZA

Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek emanaldia eskainiko dute gaur, etxeko gaztetxoenen gozagarriarako. Pirritx eta Porrotx pailazoekin hitzordua Leidor zinema aretoan izango da, arratsaldeko 17:00etan.

ALEGIA ▶

### Hitzaldi zikloaren bigarren saioa astelehenean

Alegiako Udalak eta San Joan eskolako Guraso Elkar-teak antolaturiko hitzaldi zikloak aurrera darrai, bigarren hitzaldiarekin. *Familia- ren gatazkak modu eraikitze baterako konponbideak* izenburua du eta hitzaldi honetan familiaren barruan gatazkari aurre egiteko ditugun estilo ezberdinak aztertze-ko aukera izango du. Hitzaldia Alegiako Kultur Etxeko batzar aretoan izango da, astelehenean arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara eta hizlaria Amaia Agirre Muñoa izango da.

TOLOSA ▶

### Autobuseko bi ibilbideek bat egingo dute gaur

2004. urteko autobus zerbitzuaren erabileraren analisia egin ondoren, larunbateko bi ibilbideek bat egitea erabaki du Tolosako Udalak. Gaurtik aurrera hasiko da linea batua eta hauxe izango da honek egingo duen ibilbidea: Musika eskola, San Frantzisko eliza, geltokia, Araba etorbidea, Iurre, Berazubi kiroldegia, Paper eskola, Iurramendi egoitza, Usabal, Amaro, Amaro 30, San Blas, Iparragirre, Bizkai kalea, Kondeko aldapa 5, Ibaiondo, Trinketa plaza eta Musika eskola.

VILLABONA ▶ KULTURA

# 'Xomorroak' antzerki obra eskainiko du Txalok bihar Gurean

Haurrentzat zuzenduta dagoen antzezlanak «besteen berezitasunak errespetatzen» erakutsiko dio ikusleari

IMANOL GARCIA

Txalo konpainiak *Xomorroak* antzezlan eskainiko du bihar Gurea aretoan, 17:00etatik aurrera. Anartz Zuazuaren zuzendaritzapean ariko dira lau antzezleak: Aitor Gabilondo, Itziar Urretabizkaia, Asier Sota eta Aitziber Garmendia.

Antzezlanaren istorioan bost urteko neskatok batek jasotako opari baten inguruan gertatzen dena azaltzen da. Arrosa izeneko amak alaba Loreri lorontzi bat oparitzen dio. Loreri ez zaizkio loreak gustatzen. Ez daki, ordea, lorontzi batean, lorreez gain, beste gizaki asko bizi direla. Lorontzi horretan era guztietako pertsonaiak eta istoriak gordetzen dira.

Kike kilkerra jaialdi baterako



'Xomorroak' antzezlanaren une bat. I. TERRADILLOS

prestatzen ari dela, galdurik dagoen arraultza batetik Eulitxo jaioko da eta pentsatuko du Kike bere ama dela. Kikek astirik ez badauka ere, eulitxoari amatxo aurkitzeko bidaia hasiako du. Haurrentzako zuzenduta

dagoen antzezlan honetan egiten den bidaia erakutsiko dio ikusleari. «desberdinak izan arren, badagoela elkar ulertzea, besteen berezitasunak errespetatzea, eta, azken batean, besteak maitatzea».

IRURA-ANOETA ▶ GIZARTEA

## Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldiak

I. GARCIA

Asteartean Emakumearen Eguna dela eta Irura eta Anoetako udalek hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Asteartean bertan, martxoaren 8an, xake erakustaldia egingo da helduentzat —emakumeak zein gizonak joan daitezke—. Irurako Gazte Alaiak elkartean, 17:00etatik 19:00etara izango da eta Julia Gallego xake jokalaria joango da erakustera. Izena emateko azken eguna astelehena da. Martxoaren 11n, ostirala, afaria egingo da

Irurako Gazte Alaiak elkartean. Izena emateko, Irurako edo Anoetako udaletxeetan martxoaren 9a arte.

Bestalde, Irurako Udalak eta Ikastolak, ikasleen marrazki erakusketa antolatuta dute udaletxeko sarreran. Ikastolan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna landu dute eta horren inguruan egin dituzte lanak ikasleek. Erakusketa astelehen arratsaldetik izango da ikusgai. Asteazkenean, 17:00etan, oparien zozketa eta merienda egingo dira udaletxean.

VILLABONA ▶

### Iñaki Perurenaren hitzaldia asteartean

50 *altxaldi*, 50 *galdera* hitzaldia eskainiko du Iñaki Perurenak Gurea erakustokian, asteartean, hilak 8. Aritza taldeak antolatutako emanaldia 20:00etan hasiko da.

AIZTONDO ▶

### III. Aintzondo Klasikoa bertan behera gelditu da

Bihar egin behar zen III. Aintzondo Klasikoa bertan behera gelditu da iragarrita dagoen eguraldi txarra dela eta, antolatzaileek adierazi dutenez

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko 25 • TOLOSA  
Tel/faxa: 943 65 55 15  
mug.: 626 636 138

#### ETXEBIZITZAK

**Tolosa.** San Frantzisko kalea. 100 m<sup>2</sup>-ko pisu altua. Sukaldean irteera balko zabalera, egongela begiratoriarekin eta balkoia. 3 logela, bainugela kanpoaldera, birezako aukera. Bi fatxada eguzkitsuetara, dena kanpoaldera, ikuspegi ederrak. Ganbara eta garaje plaza aukeran.

**Tolosa.** Foruen etorbidea. 81 m<sup>2</sup>-ko pisu ederra. Bainugela eta sukalde hornitua. Egongela, 3 logela, egongela handia eta trasteleku. Eguzkitsua, ikuspegi politak. Prezioa adosteko.

**Tolosa.** Foruen etorbidea eta Nafarroa etorbidearen izkinan. Etxe polita, sukalde, egongela, 3 logela eta bainugela. 50 m<sup>2</sup>-ko terraza ikusgarria.

**Tolosa.** Iurre. 90 m<sup>2</sup>-ko etxea. Sukalde, egongela, 3 logela horma-armairuekin, bainugela, bainua, 2 balkoi handi eta esekitokia. Trasteleku eta garaje itxia.

**Tolosa.** Araba etorbidea. Etxebizitza ikusgarria sukalde hornitua. 4 logela, egongela, 2 bainugela. Balkoi zabalera. Eguzkitsua, ikuspegi politekin.

50 m<sup>2</sup>-ko trasteleku, girotua eta argi naturalarekin. Garaje plaza. 330.557 euro.

**Tolosa.** Urbanizazio berrian etxebizitzak estreinatuko. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 bainugela. Terraza. Garaje itxia eta trasteleku. Igogailua sototik estalki azpiraino.

**Tolosa.** Rondilla kalea. Eraikuntza berria. 90 m<sup>2</sup>-ko etxea. Sukalde berria, egongela, 3 logela eta bainugela, 318.535 euro.

**Tolosa.** Letxuga kalea. 80 m<sup>2</sup>. Estreinatuko. Euskal estiloa. Sukalde hornitua, egongela zabalera, 2 logela, bainugela eta bainua. Igogailuarekin. 279.470 euro.

**Tolosa.** Korreo kalea. 133 m<sup>2</sup>. Sukalde hornitua. Egongela zabalera, 4 logela, bainugela. Bi kaleetara. Egoera ezin hobean. Aurki igogailua. 276.465 euro.

**Tolosa.** Bizkai kalea-Sputnik. Duplexa, 86 m<sup>2</sup>. Sukalde, egongela, 3 logela, bainugela, bainua. Eguzkitsua, alai, argi asko. 2 trasteleku eta gainera komunitatearen terraza.

**Tolosa.** Rondilla kalea. 90 m<sup>2</sup> + baldia. Sukalde ondo hornitua. Egongela, 3 logela bikoitz, bainugela, berogailua. Egoera ezin hobea. 270.455 euro.

**Tolosa.** Laskorain kalea. 77 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza polita. Sukalde-jantokia egongela. 2 logela, bainugela, despentsa. Berogailua gasarekin. Egoera ezin hobea. 264.445 euro.

**Tolosa.** Korreo kalea. 115m<sup>2</sup> erabilgarriak. Estreinatuko guztiz zaharberritu eta gero. Sukalde, 33 m<sup>2</sup>-ko egongela, 3 logela bikoitz, 2 bainugela (bat erantsia). Trasteleku. 258.435 euro.

**Tolosa.** Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxea. 70 m<sup>2</sup>. Sukalde hornitua, hall-egongela. 3 logela, bainugela, bainua, balkoiak eta trasteleku. Igogailuarekin. 258.435 euro.

**Tolosa.** Errementari kalea. Etxebizitza ondo zaharberritua sukalde hornitua eta modernoarekin. Egongela, 3 logela, bainugela eta balkoia. Eguzkitsua. Teiltatu eta paret berria. 183.309 euro.

**Tolosa.** Errementari kalea. Sukalde, egongela, 2 logela eta bainugela. Kalea ikuspegiak. 159.000 euro.

**Tolosa.** Kale Nagusia. Etxebizitza erdi-zaharberritua, monumentu artistikoa den harri-dun eraikinean.

**Tolosa.** Kale Nagusia. Duplex itxurako etxebizitza. 143 m<sup>2</sup>. Terraza, sukalde, egongela zabalera, 4 logela, bainugela. Egoera onean. 216.365 euro.

**Txarama.** Sukalde, egongela, 3 logela, bainugela eta balkoia. Hiru fatxdatatik ikuspegiak. Oso eguzkitsua. Ikuspegi irekiak. Egoera xumean. 144.245 euro.

**Irura.** Gregorio Ameztioi. Etxebizitza altua igogailuarekin. Sukalde, egongela, 3 logela, bainugela eta balkoia. Ikuspegiak. Egoera xumean. 216.365 euro.

**Ibarra.** Guridi Maisua. Etxebizitza altua igogailurik gabe. Sukalde zabalera, hornitua eta modernoa. 3 logela, egongela, bainugela, 2 trasteleku. Terraza. Eguzkitsua, ikuspegiak. 207.349 euro.

**Villabona.** Larrea auzoa. 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza altua. Sukalde-jantokia, 3 logela, bainugela eta balkoia. Eraikuntza berriko etxea trastelekuarekin. Egoera ezin hobean. Ikuspegi ederrak. Garaje itxia. 324.545 euro.

**Legorreta.** Eraikuntza berriko apartamentuak. 1 eta 2 logelakoak. Trasteleku eta bakarkako garajea, kalera itxia. Lorategia aukeran. 145.144 eurotik aurrera.

#### TXALETAK

**Bidegoian.** Txaletak eraikitzen. Lorategiarekin. 252.426 euro.

**Zizurkil.** Beheko solairuko familia bakarreko txaleta. 108 m<sup>2</sup>-ko etxabea. 108 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 2.500m<sup>2</sup>ko lursail itxia, baratza eta lorategirako.

**Elduain.** Etxebizitza salgai bi etxebizitzako txaletan. Garajea erdisotoan. 2 solairu eta arkupea. 160 m<sup>2</sup>-ko azalera gutxi gorabehera eta 400 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

#### NEGOZIOAK

**Tolosa.** Janaridenda txikia salgai. Lehenera enplegurako aukera.

**Tolosa.** Erdialdean taberna salgai funtzionamendu onarekin. Prezioa adosteko.

**Tolosa.** Rondilla kalea. Toki ezin hobean. Lokala alokatzeko kafetegia-tabernarako baimenarekin.

#### LOKALAK

Tolosan eta Ibarren lokal gehiago salgai eta alokairuan.

#### GARAJEAK

**Tolosa.** Geltoki-Renfe. 2 garaje plaza salgai.

**Tolosa.** Iurre. Garaje itxiak garbiketarako tokiarekin. Alokatzeko eta salgai.

**Tolosa.** Izarra eraikina. Garaje itxia auto bikiarentzat. 20.134 euro.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidea eta San Frantzisko kalea. Irekiak eta ibiak alokairuan.

**Ibarra.** Bekobide kalea, anbulategi ondoan. 2 plaza garaje irekiak. 14.875 euro bakoitzak.

**Ibarra.** Euskal Herria kalea. 27 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia. Eta garaje marra, 15.475 euro.

#### PABILIOIAK

**Tolosa.** 732 m<sup>3</sup>-ko pabilioiak salgai, diafanoa. 7 metroko altuera.

**Anoeta.** 370 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai. Eraikuntza berria.



euskaraz ere,  
**NATURAL TASUNEZ**

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.  
Gure lan egiteko modua da.

## IBARRA ▶ KULTURA

## Mendi ibilaldiak eta antzerkia asteburuan

May en Klowcierto antzerkiak emango dio amaiera Ibarako II. Mendi Asteari

## I.TERRADILLOS

Igande honetan amaituko da HaitzetanRaju mendi elkarteak antolatutako II. Mendi Astea, eta oraindik ere hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da.

Gaurko, eskalada irteera antolatu dute Santa Barbarara. Eta bihar, berriz, astea behar bezala amaitzeko, goizetik arratsaldera izango dira ekitaldiak.

Hasteko, 9:00etan aterata Ibarra igaroko dute mugaz muga 4 ordu inguru iraungo duen ibilaldian. Azken egune-

tan egin duen elurtea agerian dela ikuspegi ederrak ikusi ahal izango dituzte.

Irteera honetara joaten direnek, amaitzean aukera izango dute herriko elkarte baeetan egingo den ondorengo bazkarira joateko.

Arratsaldean, antzerkiak hartuko du protagonismoa, *May en Klowcierto* ikuskizuna antolatu baitute 17:00etan Ibarako Gaztetxean.

HaitzetanRaju mendi elkartetik jendea animatzen dute ekitaldi hauetan parte hartze- ra, eta alde zuzenetik eskerrak ematen dizkie.

## IBARRA ▶ KIROLA

## Partida garrantzitsua gaur Ibarak Tuteran

Jaitsiera postuetatik at badago ere puntuak batzera atera behar du Ibarako taldeak

## I.TERRADILLOS

Tuteran jokatu du gaurko partida Ibarra areto futbol taldeak.

Lasaiago dagoela orain taldea esan daiteke, pasatu den asteko garaipenarekin lortutako puntuakin jaitsiera postuetatik aldentzea lortu baitu. Egun jaitsiera postuetan dau- den taldeak, Salcedo kantabriarrak, Ribera de Navarra taldekoak eta Carnicerias Saenz taldeak dira, eta azken honen aurretik kokatzen da unet- otan Ibarako taldea 21 pun- turekin.

Ibartarrek, lasaiago egon

arren garaipenaren bila atera behar dute Ribera de Navar- raren aurkako gaurko parti- dan. Esan bezala, aurkariak jaitsiera postuetan daude eta guztia emango dute ahal du- ten moduan, puntuak etxean geratzeko.

Bestalde, jubenilen mailan Lauburukoak ligako garaileak bihurtu dira pasa den asteko garaipena eta gero. Hala ere, liga ez da amaiatu eta gaur Izarran jokatu dute Izarra Gorri arabarren aurka. Lau- buruarrek egindako lana go- raipatu behar da, jokalariek guz- tiekin kontatu ez arren lortu dutenagatik.

## IBARRA ▶ KIROLA

## X. Elkartasun Aerobik Maratoia Belabietan

16:30ean hasiko da gaur Ibarako Belabieta kiroldegian; ordubate lehenago agertzeko eskatu die parte-hartzaileei

## IÑIGO TERRADILLOS

Gaur 16:30etik aurrera izango da hitzordua Ibarako Belabieta kiroldegian. Izan ere, X. Aerobik Elkartasun Maratoia egingo baita.

Hainbat aerobik eskoletatik etorriko dira kirol honen zaleak, eskualdetik eta baita beste herrietatik ere. Hauek guztiek, ederki pasatzeaz gain, helburu jakin bat izango dute, kasuan kasuko, aerobik irakasleak as- maturiko taula ahalik eta ego- kien betetzea.

Zazpi irakasle izango dira denera eta bakoitzak bere lanarekin amaitzean 5 minutuko atsedendia egingo dute. Parte-hartzaileak 3 mailatan banatu dira, amateur, senior eta begiraleak. Gainera, han izango dira baita ere, Ibarako kiroldegiko infantilen taldekoak *step* taulatxo bat egiten Olatz Aldasoro irakaslearekin.

Aurtengoak badu berrikun- tzarik; orain arte, lehiaketatik t



3 ordu inguru iraungo du Aerobik Maratoiak. HITZA

geratzen zirenek ariketak egi- teari utzi behar zioten, orain berriz amaierarte jakingo ez denez irabazleen izena denek egin ahaliko dute 3 ordu inguru iraungo duen ariketa osoa.

Bestalde, antolatzaileek adierazi dutenez, komeniga- rria da parte-hartzaileak Bela-

bieta kiroldegira maratoia hasi baino ordubate inguru lehenago agertzea, azken orduko pila- ketarik egon ez dadin.

Aurtengo Aerobik Mara- toian bildutako dirua San Bar- tolome misio taldeak dituen proiektuak lagutzeko bidera- tuko da.

## MARISA RODERO ▶ AEROBIK IRAKASLEA

## «Aerobika eta dantza nire bizitzaren zati handi bat dira»

Ia bizitza osoa darama aerobi- kean lanean Marisa Rodero Ekintza aerobik eta dantza es- kolako arduradunak eta gaur egingo den X. Aerobik Elkarta- sun Maratoio-ko epaimahaiko kideak.

Zer da zuretzat aerobik-a?

Bizitza osoa daramat honetan lanean. Dantza eta aerobik-a nire bizitzaren zati handia dira.

**Gaurko Maratoia berezia ia- ten da.**

Badago horrelakoetarako soil- ik azken 2 hilabeteak entrena- tzen den jendea. Eskualdeko jendeaz gain, kanpotik ere asko etortzen da. Maila, berriz, oso altua izaten da.

**Nolako giroa izaten da horre- lako ekitaldietan?**

Oso giro polita. Jendeak oso ondo pasatzen du. Hain zuzen



N.LATABURU

ere, helburua hori izaten da, ki- rola eginez arratsalde atsegina igarotzea lagunartean.

**Aurtengoan epaile lanak egingo dituzu.**

Lehenengo aldia izango da epaimahaikide naizela. Gaine- ra aurtengo Elkartasun Aero- bik Maratoia prestatzeko lane- tan parte-hartzea ere egokitu zait, beraz barrutik bizi izan dut edizio hau. Orain arte ikus- le bezala etortzen nintzen, eta gaur bestelako erantzukizuna izango dut.

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atea eta eskailerak neurria

**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

**ARAMBURU**

Salgai (Ibarra). Pisu zoragamia Euskal Herria kalean. Garajea tola aukeran.

Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larra- mendiko kalean. 112 m<sup>2</sup>. Berritua.

Salgai (Tolosa). Pisu handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larra- mendiko kalean. 30.000.000 pta

Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

**KONTSU TABERNA (OREXA)**

Ostiral gauetik igande gaur arte asteburuko menua **12 €**

Telf.: 943 68 21 54

KIROLA ▶

# Olazabal Euskal Ligan finalean ariko da igandean Betelurekin

Ligaxkan jokaturako partidu guztiak irabazita iritsi dira finalera; klubun arteko partiduak gaur Amazabalen

JAIONE ASTIBIA

Mikel Olazabal aresoar pilotari gaztea, Euskal Ligako finalera iritsi da, atzeko koadroetan Patxi Betelu lagun duela, eta bihar jokaturako dute partidua Abadiñon, 11:30ean hasiko den pilotari jaialdiko bigarren hain zuzen ere eta Danon Lagunak elkartearen aurka ariko dira.

22 urtez behikoen mailan, parte hartzen ari dira gazte hauek, kirol elkartean arteko Euskal Herriko Txapelketa honetan, Aurrera kirol elkartearekin. Sailkapenerainoko bide horretan, sei partiduko ligaxkan aritu dira lanean: bost jokatu, eta bostak irabazi dituzte. Aipagarria da, bide batez, Olazabalek eskuetan min zuela eta, bere ordez herriko beste pilotari batek jokatu zuela: Jokin Barandarainek. Eta honek ere bere lana txukun asko egin



Mikel Olazabal. JAIONE ASTIBIA

zuela, azken puntuaketarako, beste irabazitako partidu bat gehiago erantsi baitzion etxeko bikotearen txartelari. Seigarrena, aurkariak izandako arazoren bat zela eta, jokatu gabe irabazitak eman zieten antolatzailerek. Halaxe adierazi zioten HITZARI behinik behin.

Horrela bada, emaitza oso onak eskuratuta, punturik gehien eskuratutako bikotea izaki, Olazabal eta Betelurekin osatutako hau, bihar txapelaren

bila joatekoa da, Euskal Ligako maila guztietako finalak jokatuko diren pilotari-jaialdia. Olazabalek atzo adierazi zuenez, «kezka piska bat sortzen digu, aurkarietan aurrean ariko dena ez baitu guzuzte ere egiten eta ez dakigu bere joko moldea nolakoa izanen den», zioen. Bestalde, aitatu zuenez, bikote bakoitzak bina pilota eramanen omen dituzte eta horrek ere bere eragina izan omen dezake azken emaitzean.

## Paleta goma sariketa

Eta gaur berriz, Leitzan ere badira partiduak, 12:30ean hasita, kasu honetan gomazko paleta jokoa: Iera Agirre eta Saioa Iraolak, Elgoibarko Lagunak taldekoen aurka jokatuko dute. Naiara Astibia eta Saioa Aristorenak, berriz, Donostian ere badira partiduak, bertako Erreka taldekoekin.

LEITZA ▶

## Asteburu honetako ere zalantzan elurrarengatik

Antsoingo Gazte Berriak taldea hartzeko du Aurrerak igandeko partiduan

J. ASTIBIA

Asteburu honetan ere elurra izanen da protagonista zurrerena futbol kontuetan, herrian, gauzak asko aldatzen ez badira behinik behin: Arkikil futbol zelaia elurtuta dago. Ondorioz, duela bi asteburu gertatu zen bezala, partidua ezin jokatu ahal izatea gerta liteke. Baina egunean ikusi beharko.

Iganderako dago iragarritako partidua, 16:00etarako. Kasu honetan, Aurreraren aurka jokatzerako, Gazte Berriak taldea da etortzeko, Antsoingoak.

Talde hau sailkapeneko kodroetan, behekaldeko lekuetan dago oraingo, eta hori dela eta, noski, partiduak irabazi beharrean, mailari eutsi nahi badio. Horrela, bada, dituztenak ematera etorriko direla pentsa liteke, etxekoei lana jarritz.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetalde.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larriald: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurki.** Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Orlarreaga, J. M. J. Iraola 10 (Tolosa). 943 672 438  
**Gimeno.** Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldeko\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetalde.** 687 41 00 22  
anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32.  
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

ELURTEA ▶

## Aurrekoa kentzeko zela, berria gainera zuri-zuri

Hala ere ikastetxeetan ez du halako eragin berezirik sortu, jostaketarako bidea ez bada

J. ASTIBIA

Berriz ere elurra zuri-zuri, berri-berritik, aurrekoaren gainean egin du atzo gauean, aurtengoz bosgarren elurte mar-dula.

Eta, askorentzat bai behinik behin, gustuko gertaera izan arren, bestaldetik kezka ere eragiten du, gutxia asko, batez ere errepedeetan sortzen dituen trabak direla eta. Horren ondorio zuzen izaten da, jendea abiatu den lekuetara ezin aillatu izatea. Horixe gertatu zitzaizen bada, kasu honetan, Leitzaldeko ikastetxeetako ikasle zein irakasle batzuei. «Baina uste baino gutxiago eragin du oraingoan elurrak», zioten,

izan ere, esate baterako Erleta eskolan irakasle bakarra gelditu zen etortzerik gabe, Amazabal institutuan bezala. Baina ikasleei dagokienez, garraioa erabili ohi dutenak ez zuten etortzerik izan, eskolakoen kasuan baserri auzoetakoei, baten batzuk gurasoek ekarri bazituzten ere, eta institutukoenean, berriz, Ezkurra, Betelu eta Goizuetakoak ez ziren etorri, autobusik ez baitzuten izan. Beraz, opor egun bat gehiago, elurraren aitzakian.

### Goizuetara itxita

Ez zuen hala hartuko, ordea, Leitzatik Goizuetara doan errepedean, kamioia tratatuta gel-



Herriko txokoak, zuhaitzak, atariak, zuri agertu ziren atzokoan. J. A.

ditu eta han utzi behar izan zuen gidariak. Herenegun Leitzaldera heldu zelarik, Goiko Zentralaren parean diren bihurtuneetan, aurrera ezin

eginez geratu zen kamioia, errepedea guztiz oztopatuz gainera. Orduz geroztik, elur gehiago egin du eta ez harako eta ez honerako, itxita dago.

iragarki laburrak ▶

LANA

**Ileapaintzailea.** Zute ileapaindegia: esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera 10:00etatik 18:00etara. eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. 943 671 934.  
**Sukaldaria eta tabernaria.** sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etarik aurrera. 943 682 154.  
**Hezitzaileak.** Haur eskolako hezitzaile lan-poltsa. baldintzak: HH Magisteritza edota HH Goi Mailako eknikaria, EGA edo baliokidea. Kurrikulumak 289 posta kutxara bidali.

ALOKAIRUAN

**Garaje itxia.** lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.  
**Etxea.** Nafarroa etorbidean etxea alokatzen da bere altzariek. 660 78 97 05.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 5a, larunbata ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aizua, Albitzar, Añeta, Alzua, Alzo, Amadeite, Anorta, Anso, Balamán, Balaranta, Baratzegi, Berrota, Etxauri, Herrialde, Ibarra, Nafarroa, Nara, Lizarri, Lizarri, Lizarri, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
besteriak: Leitzaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurritza Kultura Salla

Eusko Jaurritza Kultura Salla

943

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

08

hotzena

05

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

ELURRA ARALARREN

Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Korrikaren materiala salgai egongo da plazan.

**Baliarrain.** Harkaitz kultur elkartearen urteko batzarra 21:00etan.

**Ibarra.** II. Mendi Astearen baitan, Santa Barbarara eskalada irteera izango da.

**Tolosa.** Emakumeen eskubideen aldeko bilkura 13:00etan Trianguloan.

**Tolosa.** Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia 17:00etan Leidor zineman.

**Tolosa.** Malpaisillo-ko (Nikaragua) emakumeen zentroaren alde Elkartasun Azoka Kultur Etxean.

**Tolosa.** Travelin Brothers blues musika taldea Frontonen 23:00etan.

**Tolosa.** Nemux DJak ariko dira 23:00etatik 01:30era Abastos plazan.

**Tolosa.** Oargi elkarteak mendi martxa antolatu du Boi haranera (Pirinioak, Lleida) 24tik 28ra. Izen-ematea 637 83 03 80an.

**Ugarte.** Emakumeen bazkaria asteartean. Izen-ematea: elkarte, taberna.

**ZINEMA**

**Leidor.** Solo un beso. 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.

# HITZAK bai euskarari

**DONOSTIA ▶** Tolosaldeko eta Leitzaldeko euskarazko egunkariak Bai Euskarari Ziurtagiria berretsi du; beste HITZA egunkariak ere jaso dute

**ERREDAKZIOA**

**K**ontseiluak beste bultzada bat eman berri dio Bai Euskarari Ziurtagiriari, herenegun Donostian. Kursoalen, 800 eragile pasak—denda, enpresa, elkarte, ikastetxe, taberna— jaso zutelako ziurtagiria, haien artean HITZA guztiak—Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak berretsi egin du, lehendik bazuelako; orain 6 HITZA daude—. Euskararen normalizazioaren plan guztietan, arlo estrategikoak dira komunikabideak, lehentasun altukoak, eta sustatu eta lagundu beharrekoak.

Tolosaldean 74 eragilek dute ziurtagiria: Bidean 52k, Guk zerbitzua euskaraz 16k eta Guk zerbitzua eta lana euskaraz 6k—tartean HITZAK—.

Kontseiluak eta HITZAK eskualdeko eragileak Bai Euskarari Ziurtagiria hartzerantz animatu nahi dituzte «euskararen normalizazioaren bidean tresna eraginkorra dela demostratzen ari delako». 902 43 00 26 telefonora deitu behar da.



Sei HITZA egunkarietako zuzendariak eta Kontseiluko Xabier Mendigurenekin agiria jasotzen. IBAN ARREGI

**AGURRAK ▶**




**AUPA EMILIO!**  
Aupa Villabona bikia! Hirekin gaude, korrikalari. Billabonako Batasuna.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri: **tartea**  
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!



**AUPA AITOR ETA KOLDO!**  
Oztopo eta ilegalizazioen gainetik, aurrera Bolie! Batasuna.



**IGOR ITXIALDIAN**  
Ihotetan zu mozortzea ez ginun lortu, beino ekarriko zaitu eta ordun bai, ekusiko zot! Matte zattu! Dolox eta Nekane.



**URTE ASKOAN**  
Jon Eusebi Hidalgo Delgado. Gaur 7 urte. Zorionak eta ondo pasa familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Lorea Etxeberria (Albiztur). Gaur 8 urte. Zorionak etbekeen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Lorea Etxeberria (Albiztur). Gaur 8 urte. Zorionak etbekeen partetik.

**egin zaitez korrika laguntzailea**  
aek  
marxoaren 5 eta 6an zure herrian!